

Dionixi Lazkano Arrieta

*Arantza,
Nafarroa
(1922-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzan sortu zen,
Aroztegiko bordan. Bi
gurasoak Arantzakoak zituen.
[Cornelio Ubiria](#) senarrarekin
batera egin zitzaion
elkarriketa.

Zintak

ARN-005

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-18
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-006

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-18
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Anai-arrebak. Haur txikien bataioa

- **Erref:** ARN-005/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:00:02. **Bukatu:** 00:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

17 senide ziren eta Dionixi zen bigarren zaharrena. Haur guztiak etxean izan zituen amak. Anai bat hil zitzaien bataiatu ondoren eta meza eta guzti egin zioten. Lehen oso agudo bataiatzen ziren haurrak, hil ezkeru linbora joan ez zitezen, zerura joan zitezen.

2. 3 urteko ahizpa hil zitzaien

- **Erref:** ARN-005/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Amak pena izugarria hartu zuen eta ez zuen bere oporra ikusi nahi izaten. Anai handienak galdetzen zuen non ote zen M^a Clara, eta amak zeruan zela esaten zuen.

3. Nola moldatzen ziren horrenbeste haurrekin

- **Erref:** ARN-005/006
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxe handia zuten. 2 hurrek amatxirekin lo egiten zuten adibidez. Dionixik 8 urte zituenean hil zen amatxi. Amatxi agurtzera atera eta pulmonia bikoitza hartu zuen ahizpetako batek, apaizak oliadura eta dena eman zion, baina atera zen. Xaboi gehiegi gastatzen zutela eta, amak errazionatu egiten zien. Denak hazi ziren sano. 5 gela zituzten eta han banatzen ziren binaka, hirunaka... lo egiteko. 11 urteetarako ahizpa bat neskame atera zen, 15 urte beste bat ere bai. Ez zuten goserik pasa, gaztaina aunitz izaten zuten. Ilarra eta artoa ere bai. Amatxik egiten zuen eltzaria aunitzetan eta hurrek eramaten zuten ura etxera. Zerriak ere gizentzen zituzten saltzeko. 16 urteetarako beste anai bat atera zen Iratira lanera.

4. Iratiko anaiari gertatutako istorio bat. Kazkabarra babetan

- **Erref:** ARN-005/008
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:10:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Iratin zeuden babak bazkaltzen zubipe batean. Ekaitza hasi eta baben lapikoa kazkabarrez bete zitzairen.

5. Aita eta ama ordenatuak ziren etxeko gauzetarako

- **Erref:** ARN-005/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Aita eta ama orden handikoak ziren, amona ere ona eta asko laguntzen zien. Astero garbitzen zituzten arropak. Bazen arropak jozten zizkien emazte bat ere. Behin arropendako oihala bidali eta 4rendako egin zituen. Ezin arropa lotuz ibiltzen ziren. Arropa ere aunitz probesten zen batzuetatik bestera. Irunen lehengusuak zituzten eta horiek ere arropa ematen zieten fardeletan. Gurasoak langile zintzoak ziren eta errenta beti pagatzen zuten ongi eta kontribuzioa ere bai. Ardiak bazituzten.

6. Zer elikagai zituzten

- **Erref:** ARN-005/012
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Opilak egiten zituen eta aurreko ogiaren puska bat erabiltzen zuen opila harrotzeko. Bakoitzak bere oporra zuen (esnea hartzeko katilu modukoa). Opil hori jaten zuten, ilar gorria, urdai pixka bat... Zerri bat edo bi hitzen zituzten urtero, arrautzak ere izaten zituzten beti... Arrautzak saldu egiten zituzten ere. Olioak 23 sos kostatzen zuen, xaboiak 16. Gaztaina erreak ere jaten zituzten eta ez zuten behin ere goserik pasa izan.

7. Haurrek zer lan egiten zituzten

- **Erref:** ARN-005/014
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ura ekarri iturritik, makilekin. Zerrien jana egiteko ere ura behar zen.

8. Etxea

- **Erref:** ARN-005/015
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Etxea errentan zuten, 700 pezeta pagatzen zituzten urtean. Urte batzuk geroago Gobernuak etxea pagatu zien, etxe berria egin zien.

9. Besteak bezalatsu bizi ziren

- **Erref:** ARN-005/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Besteak bezalatsu bizi ziren, ez zuten deusen faltarik izan. Amak diru kontuak oso ongi eramaten zituen. Kanbio guztiak gordetzen zituen. Aitak terreno batzuk hartu eta lantzen zituen. Alde bakarra izan zen inork ez zuela komunioa zuriz egin, aitak probestu zitekeen arropa nahiago zuen. Etxera heldu eta berehala aldatzen zituzten arropak, berriak zaharreatik, ez hondatzeko. Maistrak esaten zien haien amak orden handia zuela.

10. Eskola

- **Erref:** ARN-005/018
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eskolara neguan joaten ziren 3 hilabetez. Azaroan hasi eta martxora arte, gutxi gora behera. Maistra denak erdaldunak ziren. Irakurtzen eta idazten ikasi zuten. Maisu bakoitzak igual 60 ume zituen. Berriz ere laneko garaia hasten zenean, bakarrik herritar batzuk geratzen ziren eskolan. Baserritako umeak, denak lanera. Ez ziren erdaraz oso ongi moldatzen. Gaztaina erreak eramaten zituzten atsedendian jateko eta herritarrek atzetik izaten zituzten beti, horregatik. Maisuak kasu gehiago egiten zien herritarrei baserritarrei baino. Herrikoak lehen lerroetan esertzen ziren.

11. Gobernuak etxea eman zien

- **Erref:** ARN-005/020
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Familia handia zirenez, 17 kide, Gobernuak etxe berria eman zien. Oso familia handiei ematen omen zieten, inguruetan beste inori ez.

12. Auzokoak inbidiatan

- **Erref:** ARN-005/022
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gobernuak etxea eman zietela eta kontra izan zituzten, inbidiatan. Etxea tirokatu zieten, postakin.

13. Etxean argirik ez

- **Erref:** ARN-005/024
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Urik ez zuten etxean eta argia ere ez. Dionixik 13 urte zituenean jarri zuten argia etxean. Zentral txiki batzuk egin zituzten 20 etxeendako eta argi apala ematen zuen hark. Askotan salto egiten zuen hark. 5 bonbilla zituzten etxean, merkeago baitziren, hortik gora garestia zen dezente. Argia goitik beheiti, kortara, pasatzen zuten zulo batetik. Gero garestita zen argia, batzuk sozio egin ziren gehiago ordainduz eta beste batzuek argia utzi zuten.

14. Herrira joateko farolak

- **Erref:** ARN-005/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:36:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Baserritik herrira ere ez zen argirik eta farolak erabiltzen zituzten. Beste etxe batean abarka zaharren gomei su eman eta horiekin joaten ziren argitzen. Gero linternak heldu ziren. Askotan farola eta letxera eskuetan itzultzen ziren etxera.

15. Arropa garbitu

- **Erref:** ARN-005/027
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:40:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arropa iturrian garbitzen zuten, baina agortzen zenean astoarekin joaten ziren putzu batera adibidez. Maindireak garbitzeko kubera bat izaten zuten eta hartan egosten zuten arropa. Errekan ere garbitzen zuten arropa belaunetaraino sartuta. Herriko andre bat hil zen hola, pulmonia hartuta.

16. Herrira oinutsik

- **Erref:** ARN-005/029
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:42:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Askotan herrira oinutsik joan eta han jartzen zituzten oinetakoak. Bestela abarka zaharrekin joan, dendan sartu eta han aldatzen zituzten oinetakoak, mendian hondatu ez zitezen. Cornelioren ama oinutsik ibiltzen zen arto jorran adibidez. Eskalanpoinak ere izaten ziren, egurrezko eginiko zapata dorpeak.

17. Ukendua

- **Erref:** ARN-005/031
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:42:51. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ukendua egiten dute etxean. Larruko zaurietarako adibidez, oso ona da, berehala garbitu eta lotzen du zauria. Dionixiren amak egiten zuen eta Corneliok ere beti ezagutu izan du ukendua. Sei osagai ezberdin ditu, xaboia, olioia, baratxuria, erle argizaria, aretxearen seboa, oiloaren seboa, intxusaren lorea ere zenbaitetan... Intxusa erredurendako erabiltzen zen gehiago.

18. Arantza ateratzeko erremedioa

- **Erref:** ARN-005/032
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:47:12. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aurreko baratxuri ukendua ona zen horretarako ere. Zerri behazuna ere erabiltzen zen arantzak ateratzeko. Harrigarria da ukenduak nola ateratzen zituen arantzak eta arrain hezurak adibidez.

19. Herpesarentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-005/033
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:51:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

3 egunetan baraurik egin behar zen erremedio hau. Oilarraren gandarreko odola herpesa dagoen zonaldetik pasa.

20. Erremedio gehiago: Enplastoak handituentzat, ertularentzat,...

- **Erref:** ARN-005/035
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:53:51. **Bukatu:** 00:55:30

Gaia(k):**Laburpena:**

Ogi papurrarekin masa egin, ardotan egosi eta hori handituendako erabiltzen zuten. Tipula egosia esnetan ere ona zen handituendako. Ertularendako ere tipula ona zen, hatza ur irakinetan sartu eta atera ere bai.

21. Erlearen ausikiarentzat haritz hostoa, osinarentzat astamenda

- **Erref:** ARN-005/037
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 00:59:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erlearen ausikiarendako ona da haritz hostoa igurtzea azal gainean. Osinarendako astamenda da erremedio ona, hori ere igurtzi behar da. Kukuxuak bidaltzeko ere ona omen da astamenda. Korneliok ez du fede handirik horretan.

22. Erremedioak zotinarentzat

- **Erref:** ARN-006/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:02. **Bukatu:** 00:00:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Kafesnea hartu eta bonetari buelta eman buruan, 3 zotin izan aitzin. Zotinarendako ere 3 zotin egin aitzin, ur baso bati 9 trago txiki eman.</p>

23. Belarrientzat erremedioak

- **Erref:** ARN-006/002
- **Iraupena:** 1:00:55. **Hasi:** 00:00:52. **Bukatu:** 01:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Epeldutako olioia belarrira bota eta kotoiarekin tapatu. Mamorro zuri batzuk ere frijitzen zituzten oliotan eta horiek belarrian ematen zituzten ere. “Gorotz-mamurruk” deitzen diete.</p>

24. Oilarrak gauez kukurruku eginez gero, sorgina inguruan

- **Erref:** ARN-006/004
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:02:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Oilarrak kukurruku egiten bazuen gauez, sutara gatz eskukada bat bota behar zen, inguruan omen zebilen sorginaren ipurdia erretzeko.</p>

25. Erremedio gehiago: Gorrinarentzat eta korotxarentzat

- **Erref:** ARN-006/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:02:23. **Bukatu:** 00:03:32

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gorrinarendako (saranpion), ohea eta beroa. Korotxendako (tosferina) , erremolatxa gorrien ura egosi eta edan.</p>

26. Sugearen ausikiarentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-006/008
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ausiki egin zuen tokian ireki, zupatu eta bota. Sugearen ausikirako ere bazen errezoren bat baina Dionixi eta Corneliok ez zuten ikasi.</p>

27. Tronpesiarentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-006/010
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Soka bat lotzen zen gerri inguruan. Goizetan mezarako ezkilak jotzean, gaileta bat eta kopa bat moskatel edaten zuten. Bederatzigarren egunean soka moztu eta sutara botatzen zuten gaileten paperarekin.</p>

28. Karitxentzat erremedioa

- **Erref:** ARN-006/012
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Sagarra lau parte egin, karitxetan igurtzi, sagarra lotu eta lurperatu, karitxak dituen horrek jakiten ez duen tokian.</p>

29. Karitxendako apoa

- **Erref:** ARN-006/014
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Apoarekin karitxak igurtzita joaten omen ziren ere. Behiei jartzen zieten apoa lepoan. Apoa hil eta idortu arte han eduki behar zuten.</p>

30. Beherakoaren kontrako erremedioa

- **Erref:** ARN-006/016
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:16:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Belar baten zainak egosi, edan eta horrek kentzen zuen.</p>

31. San Juanxarreko ura

- **Erref:** ARN-006/018
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Batzuk fede handia diote Sanjuanxarreko urari. Karitxak garbitzen zituen ere ur horrek, trapuarekin ongi igurtzi eta trapua han utzi behar zen. Zauri gaixtatuak ere sendatzen omen ditu.</p>

32. Amaraunarekin odola gelditu

- **Erref:** ARN-006/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Armiarma sarearekin gelditzen zuten odolaren jarioa. Bendari ez zenean ere belar hosto zabal bat erabiltzen zuten.</p>

33. Muskerrak lepora salto egiten zuenean

- **Erref:** ARN-006/021
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Muskerrak lepora salto egin eta 12ak jo bitartean ez zen askatzen.</p>

34. Barea altxatzen delarik, zer egin

- **Erref:** ARN-006/023
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Barea altxatzen delarik, 3 harriri listu eman, eta lurrean sartu</p>

35. Haur bat neska edo mutil jaioko zen jakiteko

- **Erref:** ARN-006/025
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Sardinekin jakiten zen, sutan saltatu egiten zuen edo ez, horren arabera.</p>

36. Urrian arrosarioa

- **Erref:** ARN-006/027
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Urrian arrosarioa erreztatzen zuten goizez eta arratsaldez, amonarekin.</p>

37. Su bedeinkatua

- **Erref:** ARN-006/028
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:27:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Kardatxekin ekartzen zen su bedeinkatua etxera eta urte guztian uzten zen sua piztua. Su zaharra bota egiten zen.</p>

38. San Juan bezpera, sarna fuera...

- **Erref:** ARN-006/030
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>San Juan bezperan suak saltatzen zituzten eta San Juan bezpera, sarnafuera, gaixtok kanpora onak barrura esaten zuten. Erramuak ere bedeinkatzen ziren egun hortan. Apaiza joaten zen auzoetara San Juan bezperean soroak bedeinkatzera. Cornelioren etxean bazkaltzen zuen.</p>

39. Apaizak soroak konjuratu harrak bidaltzeko

- **Erref:** ARN-006/031
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:30:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Har gorri batzuk heltzen ziren soroetara eta landareak jaten zituzten zainetik eta apaizak konjuratzen zituen. Ekaitzak ere konjuratzen zituen. Kandela bedeinkatua ere pizten zuten etxeetan.</p>

40. Erramua katu kakak usaina ezkutatzeko erretzen zuten

- **Erref:** ARN-006/032
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Erramu erre azukrearekin usain ona botatzen zuen eta etxeko gelei usain txarra kentzeko erabiltzen zuten. Garia ere ereiten zuten etxean, altzariak-eta apaintzeko.</p>

41. Lastairak eta oheak

- **Erref:** ARN-006/033
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:31:43. **Bukatu:** 00:33:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Lastaira koltxoiaren azpiko ohearen parte bat zen. Oheak ere nolakoak ziren azaltzen dute. Oihal bat zuten aldeetan sapaieraino, zikin ez zitezen.</p>

42. Zeri begiratu jakiteko zer eguraldi egin behar duen. Haizeak

- **Erref:** ARN-006/035
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>“Arrats gorri, goiz eguraldi” Arratsa gorria bada, goizean

eguraldi ona. “Goiz gorri, arrats euri”Goiza gorri bada, arratsaldean euria.. Hegoaizea. Itsasotik heldutako haizeak euria dakar.</p>

43. Animaliak eta aroa

- **Erref:** ARN-006/037
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:36:28. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Behorrak eta ardiak menditik jaisten badira, elurra seguru. Behi guztiak alde berera etzaten badira, eguraldia aldatuko da. Katuak muturra igurtzen badu, euria dator. Armarmak zulotik ateratzen badira, ere bai. Idor mamurruk ateratzen badira, lehortea dator. Zizareak ateratzen badira euri asko egingen du. Barraskiloak ere bai. Sugea beroarekin ateratzen da. Ekaitzarekin ere bai.</p>

44. Axeri-bataioa

- **Erref:** ARN-006/039
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ortzadarrari axerien bataioa deitzen diote.</p>

45. Toberak

- **Erref:** ARN-006/041
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:43:26. **Bukatu:** 00:44:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Festa handia izaten zen, akordeoiarekin. Bertsoak ere abesten ziren. Pregoi egunean izaten zen. Bazkaria izaten zen eta auzokoak joaten ziren gero kantura.</p>

46. Santakta eguna

- **Erref:** ARN-006/042
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:44:57. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eguberri eta errege bezperan kantuan ateratzen ziren, eskean.Limosna biltzen zuten. Egun ez da egiten.</p>

47. Musika igandetan

- **Erref:** ARN-006/044
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Arantzan akordeoia izaten zen igandetan. Ezkondutako bikoteak joaten ziren dantzara. Giltzak zintzilik jarri behar izaten zituzten eta gero hartu.</p>

48. Arantzan sorginak non izaten ziren eta nolakoak ziren

- **Erref:** ARN-006/046
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:47:46. **Bukatu:** 00:49:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Arruzpin izaten ziren sorginak. Ikaran egoten ziren beti handik pasatzeko. Errekako zuloetan izaten omen ziren. Amatzik beti kredoa errezatzen zuen handik pasatzean. Jendea izaten ziren. Apaizak ebanjelioaren liburua irekita utzi zuen sorgina zein zen jakiteko. Sorginek ezin zioten liburuari begiratu.</p>

49. Apaizak sorginak konjuratu zituen

- **Erref:** ARN-006/048
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Orazio bat egin zuen apaizak (Don Miguel), sukarra zuen emakume bati. Ebanjelioa eman eta sukarra joan zitzaion eta sendatu. Sorginkeria kendu omen zitzaion.</p>

50. Haur kanta: Ttinkun-ttinkun

- **Erref:** ARN-006/050
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:54:56. **Bukatu:** 00:55:30

Gaia(k):

Laburpena:

<p>“Ttinkun-ttinkun, mailuaren hotsa, Goierriko atsoaren poza” Haurra belaun gainean ibiltzeko.</p>

51. Elizan sartzea. Atso bisitak

- **Erref:** ARN-006/052
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:56:53. **Bukatu:** 00:59:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Haurra izan eta eliza sartu aitzin ezin ziren kalean ibili emazteak. Emazteak teila bat jarri behar zuten buru gainean. Ez dute ezagutu, baina entzun dute. Umea izan eta familia bisitan joaten ziren eta eramaten zuten jateko aunitz. Auzokoak ere joaten ziren.</p>

52. Onddoei buruzko sinismenak

- **Erref:** ARN-006/054
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:00:31. **Bukatu:** 01:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Begiratu ezker ez direla handitzen. Txikiak utzi behar omen dira eta ipurdiak ere bai, berriz jaio daitezten. Ilberrin onddo gehiago ateratzen omen da.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com